

**Izenpetze ekitaldia  
2017-2022 Hitzarmen-markoaren  
2017ko eranskina  
Baiona, 2017ko uztailaren 24a  
PRENTSA OHARRA**

**COMMUNIQUE DE PRESSE  
Signature  
De l'anexe 2017 à la  
Convention-cadre 2017-2022  
Bayonne, le 24 juillet 2017**

**Une convention-cadre conclue pour la période 2017-2022**

Dans la continuité des conventions-cadre précédentes et après évaluation positive des travaux menés ces dernières années, l'OPLB et Euskaltzaindia ont réaffirmé leur volonté commune de **pérenniser et consolider le partenariat en place pour la période 2017-2022**. La nouvelle convention-cadre signée le 16 février 2017 précise la nature des travaux susceptibles d'être menés en concertation par les deux organismes, et fixe les axes de coopération et les obligations de chacun.

Pour rappel, les axes du partenariat 2017-2022 sont les suivants :

- **Soutien aux éditions d'Euskaltzaindia**
- **Analyse** par Euskaltzaindia **de la qualité de la langue** des projets d'édition présentés dans le cadre de l'Appel à projets action linguistique organisé par l'OPLB en lien avec le Gouvernement Basque
- **Conseil** à l'OPLB pour les demandes reçues en matière de graphie adaptée pour les **toponymes de langue basque**
- **Validation linguistique** des publications du Centre pédagogique **Ikas**
- **Promouvoir Euskaltzaindia** dans la société
- **Nouvelles perspectives**

**2017-2022 epealdirako izenpetu den hitzarmen-markoa**

Aitzineko hitzarmen-markoen jarraipenean eta azken urte hauetan burutu diren lanen ebaluazio baikorra egin ondotik, **indarrean den partaidetza iraunkortzeko eta indartzeko nahikaria berretsi dute bi partaideek, 2017-2022 epealdirako**. 2017ko otsailaren 16an izenpetu zen Hitzarmen-marko berriak, bi erakundeek elkarraditurik egin beharreko lanen nondik norakoak zehaztu ditu, eta lankidetzaren ardatzak eta erakunde bakoitzaren betebeharrak finkatu.

Oroit zein diren 2017-2022 epealdiko partaidetzaren lan-lerroak:

- **Euskaltzaindiaren argitalpenak sustatzea**
- Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurilaritzak elkarrekin antolatzen duten hizkuntza jarduera Proiektu Deialdira aurkeztzen diren **argitalpen proiektuen hizkuntza kalitatearen azterketa**
- **Toponimoen grafia egokiari buruz** EEPk ukaiten dituen galderari erantzuteko **aholkuak** ematea
- **Hizkuntza baieztapena** segurtatzea **Ikas** pedagogia zentroaren argitalpen proiektuetan;
- **Euskaltzaindiaren gizarteratzea**
- **Perspektiba berriak**

Conformément à l'article 2 de la nouvelle convention-cadre, et sur la base des axes de partenariat fixés et des priorités convenues d'un commun accord, les deux organismes élaborent chaque année un avenant précisant les modalités opérationnelles du partenariat, les programmes éditoriaux et le montant de l'aide financière de l'année. L'avenant annuel fait l'objet d'une signature conjointe par les présidents des deux organismes, après adoption par chacune des instances décisionnelles.

### L'avenant 2017 à la convention-cadre (détail dans la documentation jointe)

- L'édition **d'Euskaltzaindia soutenue par l'OPLB en 2017 :**

Le recueil des rapports et des interventions réalisées lors de la XXI<sup>e</sup> session de Jagon jardunaldiak organisée par Euskaltzaindia et Euskal Konfederazioa à Bayonne, le 19 novembre 2017, sous l'intitulé *La naissance de la Communauté d'Agglomération Pays Basque et l'avenir de la langue basque*

- Comme les années précédentes, Euskaltzaindia **analysera la qualité de la langue** des projets d'édition présentés dans le cadre de l'Appel à projets action linguistique : la nouveauté concerne les ouvrages à paraître au salon du livre de Sare, qui a lieu en début d'année, soit avant la prise de décision des aides financières par l'OPLB et le Gouvernement Basque. Pour pouvoir permettre l'analyse de la qualité de la langue de ces projets d'édition, il sera demandé aux porteurs de projet concernés de faire parvenir les échantillons à l'OPLB en fin d'année précédente, afin qu'Euskaltzaindia puisse ainsi émettre son appréciation avant la publication, en disposant du délai habituel de deux mois.

- En matière de **mise aux normes des toponymes** l'Académie de la Langue Basque étant l'institution compétente, elle se chargera comme les années précédentes de proposer une graphie normalisée pour les demandes reçues par l'OPLB, de validation des toponymes basques dont la graphie n'est pas déjà normalisée. Les deux partenaires ont convenu également d'organiser, suivant les besoins, une formation qui sera dispensée par l'Académie de la Langue Basque aux professionnels travaillant en matière de graphie adaptée des toponymes de langue basque, comme cela a eu lieu par le passé.

Hitzarmen-marko berriaren 2. artikulua errespetuan, eta bi partaideek elkarraditurik finkatu lehentasunetan oinarrituta, bi erakundeek urte guzietan hitzarmen-markoari lotu eranskin bat izenpetzen dute. Eranskin horretan zehazten dira urteko lankidetzaren nondik norakoak, egitaraua, egitura bakoitzaren egitekoak, argitalpen programa eta diru-laguntza. Urteko eranskina, bi erakundeburuek izenpetzen dute, erakunde bakoitzak onetsi ondotik.

### Hitzarmen-markoaren 2017ko eranskina (zehaztasunak ondoko dokumentuetan)

- **Aurten lagunduko den Euskaltzaindiaren argitalpena izanen da:**

Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak Baionan, 2016ko azaroaren 19an, antolatutako *Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa XXI*. Jagon jardunaldietako txostenak eta adierazpenak jasotzen dituen argitalpena.

- Aitzineko hitzarmenetan bezala, EEPk eta Eusko Jaurlaritzak antolatzen duten Hizkuntza jardueraren proiektu Deialdirat aurkezten diren **argitalpen proiektuen hizkuntza kalitatearen azterketa** egiten segituko du Euskaltzaindiak. Aurtengo berrikuntza da Sarako idazleen biltzarreko argitalpen proiektuentzat, urteko lehen hilabeteetan kokatua baita, hots, EEPk eta Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzei buruzko erabakiak hartu aitzin, bertarako aurreikusiak diren argitalpen proiektuen hizkuntza kalitatearen azterketa egin ahal izateko, proiektu eramaleei eskatuko zaiela beren laginak aitzineko urte hondarra gabe EEPra igortzea. Honek Euskaltzaindiari igorriko dazko, akademiak bere gomendioa, argitalpena aitzin eman dezan, usaiako bi hilabeteko tarteak ukanez.

- **Toponimoen baieztapen prozeduran** aitzineko urteetan bezala, EEPk euskal toponimoez dituen baieztapen eskaeretan agertzen diren toponimo arautugabeei buruzko grafia arautu bat proposatzeaz, Euskaltzaindia arduratuko da.

Bi partaideek adostu dute ere toponimia grafian lan egiten duten profesionalak Euskaltzaindiak toponimiaz forma ditzan, formazioak antolatzen ahalko direla ere, beharren arabera, aitzineko urte zenbaitetan gertatu gisara.

- **Validation linguistique des publications du Centre pédagogique Ikas :** afin de garantir cette qualité, Euskaltzaindia et l'OPLB conviennent de mettre en place en 2017, en partenariat avec le centre Ikas, une procédure adaptée. Elle sera intégrée à l'avenant 2018 de la Convention cadre entre Euskaltzaindia et l'OPLB, ainsi qu'aux conventions liant Ikas à Euskaltzaindia et Ikas à l'OPLB.

- Afin de **promouvoir et faire connaître Euskaltzaindia dans la société**, l'OPLB et Euskaltzaindia œuvreront en partenariat, afin que les règles édictées et les outils créés par l'Académie soient mieux connus et plus accessibles pour les utilisateurs de la langue basque. Ainsi, l'OPLB mettra à disposition des utilisateurs, de manière visible sur son site web, les outils linguistiques d'Euskaltzaindia (cf. illustration p.4 &5).

- **Collaboration visant à élever le niveau de langue des professionnels :** l'OPLB pourra organiser avec l'aide d'Euskaltzaindia, des modules visant à élever le niveau de langue des professionnels travaillant en langue basque, au-delà du niveau C1 (du Cadre Européen Commun de référence pour les langues), en réponse aux besoins des publics spécifiques (journalistes, techniciens de la langue, traducteurs, enseignants, éditeurs...), en faisant appel aux institutions et opérateurs du domaine.

- **L'aide financière** versée par l'Office Public de la Langue Basque à l'Académie de la Langue Basque Euskaltzaindia au titre de l'année 2017 est établie à **160.000 €**, soit 20 000 € de plus qu'en 2016.

- **Ikas pedagogia zentroaren argitalpen proiektuen hizkuntza baieztapenean,** Euskaltzaindiak eta EEPk adostu dute 2017an kalitatea bermatzeko prozedura egoki bat plantan ezartzea, Ikas zentroarekin lankidetzan. Prozedura hori, Euskaltzaindia eta EEPren arteko Hitzarmen markoaren 2018 uteko eranskinari gehituko zaio, bai eta EEPk Ikasekin alde batetik, eta Euskaltzaindiak Ikasekin bestetik, dituzten hitzarmenei ere.

- **Euskaltzaindia ezagutarazteko eta gizarteratzeko** Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak lankidetzan jardungo dute Euskaltzaindiak ematen dituen hizkuntza-arauak eta dituen hizkuntza-baliabideak erabiltzaileei era ikusgarriagoan eta errazagoan eskuratzeko. Gisa horretan, EEPk Euskaltzaindiaren hizkuntza-baliabideak eskainiko ditu molde ikusgarrian bere webgunean (ikus adibidea 4 & 5. orrietan).

- **Euskararen profesionalen hizkuntza gaitasuna goratzeari buruzko lankidetzak:** Beharra adierazten duten eragile zehatzei erantzunez, lana euskaraz egiten duten profesionalen maila goratzeko (kazetariak, euskara teknikariak, itzultzaileak irakasleak, argitalpen ekoizleak eta abar) C1etik gorako hizkuntza-prestakuntza (Europako Erreferentzia Markoaren arabera) formakuntza moduluak antolatzen ahalko ditu EEPk Euskaltzaindiaren laguntzarekin, eremuko beste erakunde eta eragileei dei eginez.

- **Urteko diru-laguntza:** 2017. urterako Euskararen Erakunde Publikoak Euskaltzaindiari ematen dion diru-laguntza **160.000 €**koa da, erran nahi baita 2016an baino 20 000 € gehiago.

## ILLUSTRATION : Les dictionnaires et corpus de l'académie sur le site web de l'OPLB

L'annexe 2017 offre également d'autres possibilités aux utilisateurs. Ainsi, il sera désormais possible d'accéder aux règles et ressources linguistiques de l'Académie directement sur le site web de Office Public de la Langue Basque. Grâce à la mise en place de liens spécifiques, ces règles et ressources seront bien visibles et identifiées.

Les utilisateurs trouveront sur le site web de l'OPLB les sections suivantes : 'Dictionnaires et corpus', 'Les Règles', 'l'Onomastique', 'l'Atlas des variétés locales de la langue basque', 'la Grammaire', et le service 'Jagonet' qui permet de répondre aux questions posées par les visiteurs.

En cliquant sur le lien 'Dictionnaires et corpus' on a accès aux ressources suivantes : 'le Dictionnaire d'Euskaltzaindia', 'Dictionnaire Général Basque', 'le corpus de l'observatoire lexical', 'les Lexiques techniques de base', 'le Dictionnaire du père Lhande', 'Diccionario vasco-español-francés', et 'Mots composés et mots d'emprunt'.

### Le Dictionnaire d'Euskaltzaindia

Le *Dictionnaire d'Euskaltzaindia* est un dictionnaire normatif qui alimente le *Dictionnaire Unifié* développé de 1991 à 2015 d'acceptions, exemples et autres sous-entrées (soit 37.884 entrées, 6.944 sous-entrées et 61.398 acceptions). Basé sur les corpus traditionnels et actuels, il propose, pour chaque mot, des exemples qui permettent d'éclairer l'utilisateur. De plus, il offre la possibilité d'accéder directement aux données et ressources ayant permis de normaliser les formes, au *Dictionnaire Unifié de Base* ainsi qu'au *Dictionnaire Général Basque*, au *corpus statistique de l'euskara du XXème siècle* et à l'*Observatoire Lexical* qui ont fourni les exemples mentionnés précédemment. En moyenne, depuis octobre 2016, la version digitale du *Dictionnaire d'Euskaltzaindia* comptabilise 160.000 vues mensuelles.

### Le Dictionnaire Général Basque

C'est le dictionnaire historique, qui regroupe la plupart des livres les plus importants ayant été écrits en euskara, à différentes époques et dialectes. L'*Observatoire Lexical* a quant à lui pour objet de préparer un corpus de textes avec étiquettes et annotations destinées à la recherche (on y trouve entre autres des centaines de textes modèles issus des médias en langue basque). Tout ceci est désormais accessible depuis le site de l'OPLB dans les deux langues.

## ADIBIDEA: Akademiaren hiztegiak eta korpusak, EEPren webgunean

2017ko eranskinak bestelako onurak ere eskaintzen dizkio erabiltzaileari. Gisa honetan, Euskararen Erakunde Publikoaren webgunean Akademiak emandako hizkuntza-arauak eta dituen hizkuntza-baliabideak eskuratzeko parada izanen da. Era bereizgarri eta ikusgarrian erakusten dira baliabide hauek, horretarako lotura propioak sortu baitira.

EEPren web orrian ezarritako loturetan, erabiltzaileak honako atal hauek izanen ditu kontsultagai: 'Hiztegiak eta korpusak', 'Arauek', 'Onomastika', 'Euskararen Herri Hizkeren Atlas', 'Gramatika', eta kontsulta arinak egiteko 'Jagonet' zerbitzua.

Barnean sartuz, 'Hiztegiak eta korpusak' estekan honako baliabide hauek kontsulta daitezke: 'Euskaltzaindiaren Hiztegia', 'Orotariko Euskal Hiztegia', 'Lexikoaren behatokiaren korpusa', 'Oinarritzko lexiko teknikoak', 'Aita Lhande-ren hiztegia', 'Diccionario vasco-español-francés', eta 'Hitz elkarketa eta maileguzkoa hitzak'.

### Euskaltzaindiaren Hiztegia

*Euskaltzaindiaren Hiztegia* hiztegi arauemailea da, 1991n hasi eta 2015ean burutu zen *Hiztegi Batua* adieraz, adibidez eta azpisarreraz hornituz (37.884 sarrera, 6.944 azpisarrera eta 61.398 adiera, hain zuzen). Tradizioan eta egungo corpusetan oinarriturik, hitz bakoitzari dagozkion adibide argigarriak eskaintzen dizkio erabiltzaileari. Gainera, formak arautzeko baliatu diren datu eta argibideetara, *Hiztegi Batu Oinarridunera* eta adibideen iturri izan diren *Orotariko Euskal Hiztegiara*, *XX. mendeko euskararen corpus estatistikora* eta *Lexikoaren Behatokira* zuzenean heltzeko bidea ere ematen dio. Bataz beste eta 2016ko urritik, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* bertsio digitalak 160.000 bistaratze izan ditu hilero.

### Orotariko Euskal Hiztegia

Hiztegi historikoa da, eta bertan bildu dira euskaraz idatzi diren liburu esanguratsu gehienak, aro eta euskalki ezberdinetakoak. Aldiz, *Lexikoaren Behatokiak* ikerketarako testu-corpus etiketatu eta linguistikoki anotatu bat prestatzea du helburu (besteak beste, euskal hedabideetako ehunka testu eredugarri jasotzen dira). Horiek guztiak kontsulta daitezke, orain, EEPren webgunean bi hizkuntzetatik sartzeko aukerarekin.



## ➤ EUSKALTZAINDIAREN BALIABIDEAK

### Euskaltzaindiaren hiztegiak

Konsulta itzazue Euskaltzaindiaren hiztegiak eta corpusak:

#### Hiztegiak eta corpusak

- Euskaltzaindiaren Hiztegia
- Orotariko Euskal Hiztegia
- Lexikoaren behatokiaren corpusa
- Oinarrizko lexiko teknikoak
- Aita Lhande-ren hiztegia
- Dictionnaire vasco-espagnol-français
- Hitz elkarketa eta maileguzkoa hitzak

#### Onomastika

- Pertsona-izenak
- Deiturak
- Toponimia (leku-izenak)
- Exonomastika (Euskal Herritik kanpoko leku-izenak)
- Argibide-eskaerak (onomastika zerbitzua)

#### Arauak

- Alfabetikoki
- Gaika:
  - Onomastika (izenak)
  - Aditza
  - Idazkera eta morfologia
  - Sintaxia
  - Ahoskera

#### Dialektologia

- Euskararen Herri Hizkeren Atlasa

#### Gramatika

- Euskal Gramatika laburra: perpaus-bakuna
- Euskal aditz batua

#### Jagonet galde erantzunak

## ➤ RESSOURCES D'EUSKALTZAINDIA

### Dictionnaires d'Euskaltzaindia

Consultez les dictionnaires et les corpus de l'Académie de la Langue Basque :

#### Dictionnaires et Corpus

- Dictionnaire d'Euskaltzaindia
- Orotariko Euskal Hiztegia
- Corpus de l'observatoire du lexique
- Lexiques techniques de base
- Dictionnaire du Père Lhande
- Dictionnaire Basque-Espagnol-Français
- Mots composés **et** emprunts

#### Onomastique

- Prénoms
- Noms de famille
- Toponymes (noms de lieux du Pays Basque)
- Exonymes (noms de lieux hors du Pays Basque)
- Demande d'information (service onomastique)

#### Les règles

- Par ordre alphabétique
- Par thématique:
  - Onomastique (noms)
  - Verbe
  - Grammaire et orthographe
  - Syntaxe
  - Prononciation

#### Dialectologie

- Atlas des variétés locales de la langue basque

#### Grammaire

- Précis de grammaire basque : la phrase simple - Euskal Gramatika laburra: perpaus-bakuna
- Le verbe en basque unifié - Euskal aditz batua

#### Questions - Réponses : Jagonet